

Andres Alberdi euskaltzain osoaren erantzuna A. Garikanoren sarrera-hitzaldiari

Noeren ontziaren uberaren arrastoan

Sarrera-agurra

Euskaltzain lagun kideok, agintari jaun-andreok, Asun Garikanoren senar eta alabok (Elisabet eta Jone), senideok, hona bildutako jaun-andreok, eguerdi on guztioi!

Pozik etorri naiz gaurko honetan zuen artera, eta, ez dago esan beharrik, esker onez. Ez da gutxiagorako; izan ere, beti izaten da pozgarri euskaltzain berri baten sarrera-ekitaldira etortzea, eta are gehiago sarrera-hitzaldiari erantzun-idazkia emateko ardura baduzu.

Egia esan, neu izanik euskaltzain osoen artean zure aurretik, Asun, azkeneko etorri berria, ez nuen pentsatu ere egiten aita ponteko edo aitabitxi izateko atsegina, ohorea eta erantzukizuna neuri egokituko zitzaidanik.

Ohorea da hemen egotea, baina ez da ataka erraza izaten gaurkoaren moduko egitekoa, eta lehen momentuan izuak hartu baninduen ere (oraindik ere joan ez zaidana bere osoan), eta muzin egin nahi izan banion ere zure gonbidapenari, aitortu nahi dizut gaur gozamen handiz nagoela hemen zeregin honetan. Eskerrik asko, beraz, Asun.

Gonbita egitean eman zenizkidan arrazoiek ez zidaten ihesbiderik uzten: profil antzeko ibilbide profesionala izanak omen gara aipatu zenidan, irakasle-lanetan urte askoan arituak, testugintzaren egitekoetan buru-belarri jardunak, EIMA eta IRALEko eginkizunetan eskarmentatuak biok... Erantsi zenidan nire erantzunak borobilduko omen zuela ondoenik zure hitzaldia. Erronka handia da inondik ere zure euskara dotorearen parera iritsi beharra, baina saiatuko gara, eta ea ganorazko zeozer esateko gai garen!

Pozgarria da Asunek 21. aulkia hartuko duela jakitea, baina ez da gutxiagorako horrek berekin dakarren lorratza edo arrastoa. Oso urruti geratu zaigu Jose Paulo Ulibarri Okondoko semeak duela 100 urte (1823an) euskara zaintzeaz arduratuko zen erakunde haren profilaren imajina gaur egun Euskaltzaindiak duenarekin konparatzen badugu. «Hogeita lau gizon behar dira izendatu» zioen hark. Orduan, ez zitzaion burutik pasatu ere egingo euskaltzain osoen fisionomia zenbateraino aldatuko zen urteen joanean. Izan ere, egun, parekidetasunaren lorpena ate joka dugu; sekulako aldaketa ari da gertatzen akademia honetan. Azken bost euskaltzain oso berrietarik lau emakumeak zarete: Miren Agur Meabe, Castillo Suárez, Itxaro Borda eta zeu, Asun. Behialako intsentsu-usain eta sotana-dantzaren orde zuten lanerako grina eta zorrozatasuna izango ditugu bidelagun. Inork bestelako uste txarrik izan balezake ere, Euskaltzaindian badakigu ez zaretela hautatuak izan emazteki zaretelako, baizik eta zairen bezalako emaztekiak zaretelako: trebeak, langileak, eragileak, konprometituak, ausartak, gazteak, aintzatetsiak, erreferentziakoak... Ez dugu zalantzarik egiten zuen bikaintasunaz.

Aipatzekoa da, era berean, azken urteotan Euskaltzaindian sartzeko sarrera-hitzaldia nork bere jaioterrian egiteko ohiturari ez diozula jarraitu, Asun. Aukera egin behar zen, eta egin duzu, eta denok ulertzen eta onartzen ditugu zure aukeraren arrazoiak, hala, Gasteizek azken urteotan egin duen euskararen aldeko ahalegina eta aurreramentua edertzen, dotoretzen, duintzen... baituzu keinu edo seinale horrekin. Berrogei urtez Araban bizi izan ondoren, jende-multzo handia duzu hemen hurbileko; gertutik bizi izan duzu ehunka irakasle arabarren euskalduntze-prozesua ere... Horrenbeste merezi zuen, beraz, Gasteizek.

Asunen nondik norakoak

Aspalditik nuen zure aditza, Asun, iazko irailean Iruñean bekoz beko elkar ezagutu genuen baino lehenagotik: 13 urte lehenagotik, zehatz esanda. Kontatuko dizut anekdota, pasadizoa, ez dut uste-eta dakizunik: 2011ko ikasturte-bukaera zen, EIMako eta Irako irakasle batzuek Eibarko jatetxe batean kurtsu-bukaerako bazkari-pasara genuen, hamarren bat irakasle batu ginen bertara. Ez zintudan ezagutzen, baina esan zidaten etortzekoa zinela. Mahaian aurrez aurre bi andere gazte egokitu zitzaizkidan. Sinistuta pasa nuen otordu guztia haietako bat zu zinela, eta uste horretan aritu nintzen huntaz eta hartaz jardunean eta berriketan...

«zurekin», harik eta despeditzerakoan jakin nuen arte Asun Garikanok ez zuela etortzerik izan bazkaritara. Gau hartan ezagutu zintudan aurpegiz, etxera joan eta Googleri zure aurpegiaren imajina eskatu nionean. Horra arte anekdota.

Gatozen oraingora.

Euskaltzaindiko bileretan-eta elkarrekin bide luzerik egin ez badugu ere, euskaltzain denok gaude antzemanda Asun Garikanok higuin dituela berari eginiko gehiegizko gorespenak eta laudorioak, ez duela agerikotasunik nahi izaten, eta orain ere askoz nahiago lukeela ekitaldi honetan albotik begira egon, parafernalia arranditsu hau dagoeneko amaituta egotea, hemen denon aurrean protagonista izaten jarraitu baino.

Ez naiz hasiko, beraz, isipua airean astintzen, ezta gehiegizko goresmenik egiten ere, baina bistan da isilik ere ez naitekeela gera. Aitabitxi egin nauzunez, Asun, ez nuke nahi aitona-amonek beren bilobez jarduten duten manera neurritz gorakoan ari, baina zor diot neure buruari euskaltzain oso izateko uztartuak dituzun merezimenduak jendeari gogoraraztea.

62 urte dituzu, Euskal Filologian lizentziaduna zara. Onenean hartu zaitugu Euskaltzaindirako. 1962an Tolosan jaioa zara euskaldun familia baten altzoan, eta huraxe izan zenuen haurtzaroko eta nerabezaroko herria. Zeuk eman dizkiguzu zeure hitzaldian garai hartako zertzelada batzuk; beste batzuk, nik hemen errepikatuko ez ditudanak, Euskaltzaindiaren webgunean daude jasota¹ edota duela aste batzuk Garbiñe Ubeda kazetariak *Berrian* eginiko elkarrizketa ederrean².

Nik neure aldetik, merezimenduak aipatzen hasita, eta hesitu beharrez, lau esparrutara ekarri dut zure curriculum:

1- Irakaskuntza izan duzu ogibide, eta zeregin horretan, besteak beste, Gasteizko Iraleko irakasle eta Eusko Jaurlaritzako EIMako kide izan zara. Horrek esan nahi du irakasleen irakasle izan zarela eta euskal kulturaren baratzean gutxi ibilitakoak zirenei gure historiaren eta literaturaren aberastasuna transmititzen saiatu zarela. EIMako kide izanik, euskarazko ikasmaterialgintza ere gertutik ezagutzen duzula, hamaika testuliburu eta eskola-material sakon ezagutzen duzula, alegia.

¹ <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/euskaltzainak/osoak/6224-asun-garikano-iruretagoiena>

² https://www.berria.eus/kultura/egileak-berak-bere-liburua-itzuli-beharra-zigor-bat-da_2123774_102.html

2- Literaturara ere arrimatu zara, bi lan bikainekin, bi saiakerarekin. Horietan, Ameriketako Mendebalde Urruneko euskaldunei buruzko berriak eman dizkiguzu ezagutzera. Lehenengoan, *Far Westeko Euskal Herrian* (2009koa), haien ondare idatziaren berri eman zenigun; eta bigarrengoan, *Kaliforniakoak 1533-1848* izenekoan (2013. urtekoa), Kaliforniaren aurkikuntza eta kolonizazioan euskaldunek izan zuten parte hartzearen berri.

3- Itzulpenen mundua ere zeure-zeurea duzu, itzulpen literarioa zehatz esanda, ez alferrik itzuli baitituzu euskarara, besteak beste, William Faulkner, Patricia Highsmith, Robert Louis Stevenson, John Steinbeck eta Carson McCullers; edota Bernardo Atxagaren lanak gaztelaniaz jarri. Esango nuke euskal letren errepublikan batez ere itzultzaile gisa zarela ezaguna.

4- Editore-lanetan ere ibili zara, bazabiltza: lehenik eta bereziki Bernardo Atxagaren (Irazuren, zuk deitzen diozun moduan esanda) liburuekin, baina baita Kepa Altonagaren liburuekin, J. Sarrionandiaren libururen batekin, Anariren poema-liburuarekin... ere. Euskaltzaindiaren *Erlea* aldizkarian editore ere zeu izan zintugun hura martxan izan zen urteetan (2009-2016).

Badakigu, beraz, nondik zatozen eta nolakoa duzun eskarmentua, eta igarriak gaude, baita ere, nolakoa duzun ardura, Euskaltzaindiaren dokumentuak aztertzen txintxo-txintxo eta aktiboki aritzen baitzara zeure ekarpenekin. Ziur nago horretan jarraituko duzula gerora ere.

***Noeren ontzia* proiektua**

Gramatika eta hiztegia jarri zituen erdigunean Euskaltzaindiak estandarizazio-lanari ekitean. Onomastikari eta Exonomastikari heldu zien ondoren. Azken hilabeteotan, serio eta tinko ari gara ortotipografiaren esparruan ere... Beste zenbait batzordek ere badihardu (euskalkienak, sustapenarenak, etab.). Eta hala behar du, nahitaezkoa da alor horiek guztiak lantzea, nahi badugu euskara eguneratu, aberastu eta komunikazio-funtzio guztietarako baliagarri egin.

Zenbait jenderen ustez, aipatu ditugun alor horiek bakarrik dira Euskaltzaindiaren egitekoak, kontu «akademiko» horiek, eta ez gehiago. *Noeren ontziaren* eta gisakoen proiektuek ez dute hizkuntza-akademia baten ardatzean

eraginik, haien ustez; bigarren mailakoak dira, periferiakoak... Ez naiz ni iritzi berekoa. Gogora ekar dezagun Euskaltzaindiak era horretako lan periferikoak lehendik ere egin izan dituela; batzuk aipatzearren, akordura ekar ditzagun garai bateko bertsolari-txapelketak antolatzea, edo euskalduntze- eta alfabetatze-programak abiaraztea, edo euskararen tituluak (D eta B tituluak, eta EGA) ezartzea, edo azkenaldiko *Irailekoak* poesia-jaialdiak antolatzea eta *Euskararen Gogoetagunea* egitasmoa abian jartzea, eta abar eta abar, Euskaltzaindiaren eraginez eta itzalean sortutakoak. Tinko eutsi ez ezik, «periferiko» deituriko horrelako proiektu gehiago sustatu behar lituzke Akademiak.

Testuinguru horretan kokatu behar genuke, horrenbestez, Asunek gidatzen duen eta Euskaltzaindiak aurten abian jarritako *testu-bildumaren* proiektua ere, *Noeren ontzia* izenarekin datorren proiektua, hain zuzen. Xeheki agertu digu Asunek zer den hori, zer eskainiko duen, zer helburu dituen, nolako erremintakutxa osatu nahi den berarekin. Ez naiz, beraz, baldarki errepikatzen hasiko hain trebeki azaldu dizkigun kontuak.

Nik, zuen baimenarekin, entzuleok, ura neure errotara eramango dut, neure esparrura. Esan zaigu *Noeren ontzian*, Noeren baporean, genero guztietako idazkiak jasoko direla, ez literarioak bakarrik; nik, baina, literaturara eta irakurketa-mundura eramán/lerratu nahi dut zuen arreta. Izan ere, hari bat baino gehiago dago tira egiteko modukoa Asunek gaur eman digun hitzaldian, eta, zuen baimenarekin, hiruri helduko diet, eta horien inguruan gogoeta xume batzuk egiteko probestuko dut nire aukera.

Lehen gogoeta. *Ilusioa pizten dit proiektuak.* Pozgarria da niretzat *Noeren ontzia* proiektua Elgoibarko Euskara Mintegian testuliburuak egiten hasi ginenean, 1985ean (duela 39 urte), izan genituen helburu berberekin datorrela jakitea eta ikustea. Bi helburu nagusi aipatu ditu Asunek. Horretan saiatu ginen geu ere orduan: a) gure aurrekoen ondarea eskolara ekartzen eta hura ikasleei transmititzen, eta b) irakurmenaren gaitasuna lantzen, eta irakurtzeari gustua hartzera bultzatzen.

Aski da, horretarako, liburu haietara jotzea. Mimos eta arduraz zaintzen genituen haietan gure kultura-ondarearen ezaugarriak eta pertsonaiak, gure ohiturak, folklorea, kantuak..., haiek erreskatatu nahian. Mimos eta arduraz zaintzen ziren landu edo gozatu behar ziren testu literarioak ere. Testu-sorta polita bildu genuen asmo horrekin, orain *Noeren ontziak* duen helburu berarekin.

Izan ere, ez da seinale ona gure eskoletako gazteek (gero irakasle, kazetari, hizlari, itzultzaile, dinamizatzailerak, politikari... izango diren gazteek) batxilergoa bukatu eta ez jakitea nor ziren, adibidez, Etxepare bat, Leizarraga bat, Axular bat..., edota irakurritak ez izatea, esaterako, Txomin Agirreren *Kresala* edo *Garoa*; edota Elgoibar eta inguruko herrietako gazteek ez jakitea nor zen Pedro Migel Urruzuno, edota eskolaldian ez irakurtzea auzo-herrikoa zen Juan San Martin baten *Zirikadak* edo *Eztenkadak*.

Pozgarria da niretzat, beraz, gure garai hartako intuizioa eta *Noeren ontziaren* helburuak parean doazela ikustea. Testugintzan hasi ginenean hastapenetara narama.

Bigarren gogoeta. *Literaturari protagonismo handia ematen dio proiektuak, eta bide-erakusle aparta izateko itxura du.* Hemen ere Asunen hitzak baliatuko ditut. Hitzaldian esan du euren amak «zuzentasuna baino gehiago eskatzen ziola hizkuntzari», eta hark, kalitatearen tamaina, «ederki esana dago» esaldiarekin epaitzen omen zuela. Artista zuen ama, Asun!

«Ederki esate» horren harira, adibideak eman behar eta, testu batzuen pasarteak ere eman ditu Asunek: Pedro Mari Otañok txepetxari eskainitakoak, Julian Alustizak Zumarragako Sagaspe baserriko aitonari jasotako kontakizuna, besteak beste. Halakoak behar dira eskolan; izan ere, inor gutxi jarriko du zalantzan eskola-garaia dela hizkuntzara eta literaturara arrimatzeko eta zaletzeko garairik egokiena. Orduantxe izan behar luke ikasleak hizkuntza eta literatura bakoitzak duen moldeaz, koloreaz, ehunduraz, «munduaz» ohartzeko eta gozatzen ikasteko garaia.

Neure kasuan, behintzat, eskola-garaikoak dira nigan arrasto nabarmena utzi duten testu gehienak, batez ere literaturari gagozkiola. Neure buruari galdetzen diodanean zein izan diren niretzat testu maitatuenak, gogoratuenak, barne-zirrara benetako eragin zidatenak, eskola-garaikoak dira gehienak. Neure sarrera-hitzaldian adierazi bezala, gatzetxotan Joan Mari Lekuona zenarekin landu eta ikasitako haiek batez ere, hirurogei urte pasata ere ahaztu ez zaizkidanak.

Eta «ederki esate» horren agergarri, eta bidez batez gaurko ekitaldi honen *aringarri*, utzidazue nire iduriko eta gusturako, benetako perlak diren hiru testu-pasarte aipatzen. Ziur nago gaur hemen ematen ari garen argudioak sendotzeko balioko dutela; niri, behintzat, hizkuntzaz maitemintzen lagundu zidaten.

- **Lehen testua:** Antonio Urbietak bere anaia «Kaskazuri» bertsolariari Ameriketatik (Asun, hau ere Ameriketako, emigrante), xx. mendearen hasieran³ bidali zizkion bertsoak, *Nire sentimendua* tituluarekin. Hirugarren ahapaldia da honako hau. Harrigarria da nola adieraz, iradoki, irudika daitekeen halako bizitasunarekin eszena bat, hain hitz gutxiarekin.

Hamazazpi urtetan (KANTUAN emana)
banuen segira,
neska gazte guztiak
neroni begira;
lurrik ikutu gabe
gorputzari jira.
Orduko arintasunak
asentatu dira.

- **Bigarren testua:** 1935eko Bertsolari Txapelketako Txirritaren *Laurogei urte gainean* ditut bertsoa. «Euskera» zuen kantatu beharreko gaia. Aldamenean zuen txapeldun izango zen Basarri, adierazpide eta euskara jantzi eta dotoreko pertsona... Bere euskara gutxiesten zuen nonbait Txirritak harenaren aurrean. Garbia da ironiaren ziria...

Laurogei urte gainean ditut (KANTUAN emana)
nago hanketako minez,
Donostiara etorria naiz,
herren handiak eginez.
Bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman ezinez.
Euskera ia ahaztu zait eta,
erderarikan jakin ez;
maisut batekin eskolan laster
hasi behar det latinez.

³ Antonio Urbietak (Oñate, 1883-1955). Ameriketara 16 urte egin zituen: 1908-1924.

- **Hirugarren testua:** Duela urte batzuk zendutako Xabier Dihartze «Iratzeder» (1920-2008) olerkari bikain eta euskaltzainaren ipuina, *Ixtorio bat* izeneko, prosa liriko ederrean eta garaiko kristau-sinesmenaren ikuspegitik eginiko testua. Argia da irakaspena: amaren semearekiko maitasun betirakoa.

(Ipuinaren hasiera laburturik emango dizuet) Ama-semeak itsasaldeko etxetxo batean bizi dira, Erromardin. Ama alarguna da; itsasoak irentsi zion senarra. Seme haurra gazte egin da, hemezortzi urte ditu jada, eta lagunekin ostatuetan eta laketzen hasia da, eta sarritan... ezin etxera erretira. Ama, luzetsita, itxoiten, beha eta beha, sufritzen semearen zain..., hamarrak, hamaikak, hamaika eta erdiak, gau-erdi... Ama zain. Elkar asko maite dute, eta min ematen dio semeari amari min egiteak, baina, baina... hain da gozoa lagunartea!

Orain Iratzederren hitzak; ipuinaren bukaerakoak, hain justu:

Huna (Hara hemen) Pelli! Jauzi batez atean da ama, eta dio: “Ez, orainkoan berantegi duk, berantegi. Debekatzen haut hoin berandu sartzea”.

Semea edana zen, itsuski edana. Salbai-oihu bat bota zion amari, mahain gaineko ganibeta harturik, sartu zion eta, dena odol lurrean zagolarik ama, xirtxikatu ziozkan ganibetarekin bularrak eta bihotza, amaren bihotza, errotik atera.

Oi, Erromardiko larretan haize-marrumen xistu luzeen intziria!

Amaren bihotza eskuetan, ero bat bezala, joan zen lasterka, joan zen larrez larre ur bazterreko alderat: itsasorat bota behar zuela bihotz hori, bekaturako bakea kentzen zion bihotz hori.

Bazoan, bazoan, Erromardiko larretan barna, begiak su, eskuak odol. Bazoan eta, noizbeit, itsasorat gabe, harri tarterat erori. Amaren bihotz barnetik orduan mintzo bat: “Ene txikia, min hartu duk?”

Horiek hiru testuak.

Hirugarren gogoeta. *Kezka eskolaren jardunbidean.* Izan ere, kezka sortu du Noeren ontzia proiektua. Kezka serioa agertu digu Asunek gure gaurko euskal eskolaren emanean eta maneran, eta... eskolaren geroan. Kexu da eskolako jardunbideaz, herren ikusten du hura, eta klarki adierazi ditu arrazoiak. Hona hitzez hitz haietako batzuk:

- (zurrumurru batek omen dio) «gaizki ari gara», “akulturazio-prozesu batean sartuta gaude”»
- (konstatazio bat) «gazte askok euskara jakin bai baina ez dute erabiltzen, horietariko batzuek ez dute euskaraz hitz egin nahi ere, ez dute euskararekiko atxikimendurik sentitzen, euskara arbuiatzen dute...»
- «hizkuntzari (gramatikari) eman diogu protagonismoa, hizkuntzan jarri dugu indar guztia, beste guztia ahaztuta»
- «ez gara ondo ari euskal curriculumaz ezartzerakoan»
- «ez da irakasleen eskura jarri ikasmaterial duin eta egokirik»
- «gastelaniaz eta frantsesez, egungo literatura ez ezik, klasikoen obrak ere irakurtzen dituzte eskolan. Eta euskaraz?»

Eta abar, eta abar.

Iritzi berekoa naiz. Ez gara ondo ari. Eta hori egiaztatzeko, aski da gure eskola-ikastola eta institutueta Euskara eta Literaturako irakasleen ilusio falta eta noraeza ikustea eta nabaritzea. Etsipena ez dute urruti. Haien kexuak dira hauek:

- Ordu gutxi dira hiru eskola-ordu astean. Euskarak eskolan oraindik bizi duen egoera diglosikoan, euskara eta literatura oinarri sendoagoekin landu behar lirateke; ahozotasunari ere toki gehiago egin beharko litzaioke...
- Euskararen eta literaturaren implementazioa ez dago modu naturalean egituratuta. Bi datu, adibiderako:
 - Batxilergoko euskarako programazioan lantzen den gaitegiak ez dauka islarik gero selektibitateko hautaprobetan. Eskakizun-maila asko jaisten da hala. Horrela izanik, ikasleek ez dute motibaziorik gaitegi osoa ikasteko. Zertarako ikasi nor zen Axular, gero azterketan ez bada hartaz galdetuko?
 - Euskararen gramatikak eta literaturak % 10 baino ez du balio hautaprobetako azterketaren konputuan. Anitz gehiago baloratzen dute gastelaniazkoan. Zergatik hala?
- Irakasleei, eguneratzeko bide erosoagoak eman behar litzaizkieke: gaur egungo euskara estandarra ez da duela 30 urtekoa, asko zehaztu dira hari buruzko kontuak azken urteotan, baina irakasle asko ez da horretaz jakitun;

irakas-moduak ere aldatuz doaz oro har; irakasleak ez daude nahi bezain prestatuak literatura irakasteko...

Eta abar, eta abar.

Arrazoi horiek, eta aipatu gabe geratu diren beste hainbatek, orain arteko eskola-jarduna berrikusi eta birformulatu beharra erakusten dute. Euskara eskolara eramanez, baina eskola ez da euskaldun, are gutxiago euskaltzale, eta guk ikasle euskaldunak ez ezik euskaltzaleak ere behar ditugu... Euskaldun oso egiteko konbentzimendua lortu behar luke eskolak, egungo eta bihar-etziako euskal gizarte berria baldin badugu helmuga.

Eskolak duen erronka handia da, oso handia, paradigma-aldaketa handia dator eta: hizkuntza minorizatu bati auzo-hizkuntza ahalguztidunek eragiten dizkieten ajez gain, XXI. mendeak berekin dakartzan aurrerapenak eta arriskuak, aurkiak eta ifrentzuak ere ezin ahaztu: globalizazioa, digitalizazioa, adimen artifiziala, irudiaren erabateko nagusitzea, gizarte-molde indibidualistagoa... Horien aurrean, ezinbestekoa da hezkuntzan eztabaida sustatzea, beharrezkoa irakaskuntza-metodoak albat azkarren birplanteatzea.

Betikoa, alegia. Euskaldunok zail daukagu noizbaiteko Arkadia amestu hura ikustea, baina, gogora dezagun nondik gatozen eta nora joan nahi dugun, eta, horri, gero, Asunek esan bezala, «Joanes Etxeberri Sarakoaren entusiasmo miragarria gehi diezaiozun».

Bukaera

Buka dezadan nire erretolika. Lehenengo, eskerrak eman behar dizkizuet zuei, entzuleoi, nahiko meritu izan duzue-eta, inolako nekadura-imintziorik gabe, lehenik Asunen hitzak, gero nireak, oso-osoan entzuteko.

Eta gero zuri, Asun. Ohorea eta errekonozimendua jasotzen ari zara euskararen alde egin duzun lan bikainarengatik..., baina ez ahaztu zein diren jasotzeaz zauden diplomaren azken hitzak: «[...] eta geroko (lan)en pizgarri». Hasita zaude geroko lan horietan, hala jakinarazi diguzu zure *Noeren ontzia* proiektuaren berri ematean. Zorionak, beraz, berriro ere, Asun, eta urte askoan! Ongi etorri Euskaltzaindira!